

Iñaki Murua

Mezua eta konpromezua

Z

ertan ari gara ezin badugu mezua konpromezuarekin lotzerik lortu? Zertarako da mezua, zer balio du guban inolako eraginik ez duen mezuak? Itxura egiteko baino ez den mezuak?

Mezu hau irakurri berri dut Goierriko Gaztetxe baten aurrean (gazteek beraiek jarria noski!): “Gaztetxera etorri nahi bazu, ez puskau erretrobisorerik eta zaindu ingurunea!”. Txalogarria mezua, benetan! Baita hau idatzi dutenek hartu eta hedatu nahi duten konpromezua ere.

Zer gertatzen ari zaigu hau egunerokoan hausten ari bagara/badira? Posible al da orain arte helburu polit eta giro jatorrekoak direnak, gogaikarri bilakatzea? Batzuen egitekoa da ala denok behar dugu honetan ardura hartu? Denok parte hartu behar dugu prozesu honetan, baina eskolan eta etxean soilik? edo baita kalean eta leku guztietan ere? Nola liteke kalea bete jende helduz, eguerdian edo arratsaldean bildua, eta dendariak antolatutako ekintza publikoan eta plaza nahiz inguruko ibilbideak plastikoz, azalez eta zaborrez beteta uztea?

Zertan ari gara arrazakeriaz larriturik eskoletan eta hezkuntzan saiatzzen, gure inguru hurbilean asteburuetan ikus badaiteke, euskaldun koadrila gaztea, tartean sudamerikar bat eta, koadrilakoek otartekoak eskatzera sudamerikarra bidali eta hark irtetea, denak ospa egin xentimorik ordaindu gabe? Nori leporatzen diogu errua? Nor ari da arrazakeria erabiltzen bere delituak estaltzeko, gure seme-alabak ez badira? Zein da erabilia? Eta mezua?

Aldiz, adibide soil bat asteburu berean, Cauterets eski estazioan, aita-semeak sartu tabernan, semeak 14 urte, eta aitak bi garagardo eskatu eta zerbitzariak berehala: “Ez, gazte honek ez ditu 18 urte eta ezin diot edari hori zerbitzatu” eta aitak “ez, ez, orain dator ama eta berezako da”. Hau bai jarrera eredugarria eta kar-teletako mezuarekin bat datorrena, helburua ez baita edozeinen kontura dirua irabaztea. Gure aitona zioen moduan: “Nolanahi ondo dauna, edozein moduz gaizki dau!”.



DANI BLANCO

Lanbidez ezagutzen ditut hainbat gazte eredugarri behar den lekuan dagokien mailan ibiltzen dakitenak eta gainera, gizarteari eta herriari, antolakuntzan nahiz ideietan eta sormenean, ekarpen bikainak eta opa-roak egiten dizkietenak. Baina gurasoen ardura da beren seme-alaben jarraipena egitea eta nerabezaroan edo gaztetxoak direnean oraindik gehiago. Momentu horretan jakin/asmatu behar da mugak jartzten eta baiezkoa edo ezezkoa esaten/adosten/ikusten/onartzen. Askotan ez baitakite mugak adosten eta hortik sortzen da inseguritatea eta nortasunik eza.

Dena den, gurasoak diodanean ez naiz ari, gure seme-alabez soilik, ez. Gureak eta besteak ere badira gure ardura. Gizartean ardurak hartzen ikasi eta irakatsi beharra daukagu eta, etorkizuna gazteak badira (hainbeste aldiz hain erraz aldarrikatzen duguna), noiznahi eta nonahi gaizki dagoena zuzendu edo zuzenarazi behar diegu. Guk dugu gureen eta gure lagunuen oinordekoen ardura eta haiek gureena, gu ez gaudenean. Hala izan da orain baino lehenago ere gure herrietan; norbaitek ikusten bagintuen okerren bat egiten, ez zigun isilik utziko eta laster jakingo zuten gure etxeetan, ongi egindakoa jakingo zuten bezalaxe.

Guk dugu gureen eta gure lagunuen oinordekoen ardura eta haiek gureena, gu ez gaudenean. Hala izan da orain baino lehenago ere gure herrietan; norbaitek ikusten bagintuen okerren bat egiten, ez zigun isilik utziko eta laster jakingo zuten gure etxeetan, ongi egindakoa jakingo zuten bezalaxe

Interesgarria litzateke eztabaidatzea —arlotu guztietan— nolako giroa nahi dugun gure herrietan, harreman goxo, aske eta gustagarriak ala “*loque de queda*” moduko bat jarri AEBetako hainbat herritan bezala? Agian has gaitezke, duela hogeita hamar urte inguru Beasainen bezala, gauetan gurasoen bi auto patruilatzen, eskopetak kargaturik, delinkuentziaren aurkako neurri gisara?

Zer, orduan, gazteei aukerak jarri behar dizkiegu beren kontraesanak dagozkien garaian bizi ditzaten, beren artean eztabaidatuta, landuta, borroka eginda... eraikitako gaztetxeetan ala guk moldatutako gaztegunek sortu behar ditugu eta beren inizatiba moztu, gaztetxeak ordezkatzuz nahiz itxiaz? Zein da biderik seguruen —ez erosoena eta motzena— gazte arduratsuak sortzen laguntzeko? ■